# Denbora-

## 2 Kopiatu koadroz koadro

Osaba bikingoz jantzi zeneko kaskoa topatu du Iñigok. Arkatza hartuta, gai izango al zinateke kasko berdina berriro marrazteko?





## 3 Hizki salda

Saskibaloiaren jarraitzaile bazara, erraza izango da zuretzat hizki salda honetan zazpi saskibaloi jokalariren izenak topatzea. Ea lortzen duzun!

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | N | E | A | L | O | L | K | C |
| A | X | Z | W | R | W | Ñ | P | A |
| N | O | C | C | I | O | N | I | S |
| I | W | Z | Y | R | N | B | P | O |
| A | S | D | T | M | Ñ | F | G | L |
| B | D | I | K | L | R | E | S | M |
| E | U | Y | P | Ñ | A | E | G | J |
| N | R | H | L | A | P | O | D | M |
| N | S | N | E | D | Ñ | O | H | T |
| E | Q | J | A | Z | T | P | B | I |
| T | C | B | R | Y | A | N | T | A |
| T | X | E | K | O | G | K | Q | L |
| E | I | T | Z | T | L | X | M | Ñ |
| Z | T | N | X | L | E | A | N | G |
| H | E | Z | N | A | N | M | T | X |
| T | S | C | O | L | A | N | T | S |
| R | M | J | K | L | A | K | W | A |
| U | I | S | Z | D | H | A | Q | D |
| F | A | D | R | Z | Q | A | X | I |
| K | L | O | Ñ | F | Y | U | O | L |
| B | J | P | S | C | V | M | A | S |



## Dortoka

Eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugun materialei uste baino erabilpen handiagoa eman diezaiekegu. Zer egin daiteke, esaterako, arrautza kaxa batekin? Dortoka bat, agian?



**Beharrezko materiala**

- Arrautza kaxa.
- Egunkari papera.
- Harri-kartoia.
- Kola.
- Pintura zuria, berdea, horia, beltza eta gorria.
- Pintzelak.
- Paperezko zinta eranskorra.
- Guraizeak.

### Egiteko modua

**1** Dortokaren oinak eta isatsa egiteko, harri-kartoia erabiliko dugu. Oinak eta isatsa moztu ostean, arrautza kaxa hartu, eta barruan



itsatsiko dugu kolarekin. Barruko aldetik itsatsi arren, oinak eta isatsa kaxaren kanpoaldera aterako ditugu. Bi hanka arrautza kaxaren alde banatan jarriko ditugu, eta atzeko aldean, isatsa.



**2** Egunkari paperarekin eta paperezko zinta eranskorrarekin, dortokaren buruari forma emango diogu.

**3** Arrautza kaxaren aurreko aldetik, itsatsi egunkari paperez egindako burua. Kolatutako egunkari paperekin bete



arrautza kaxa barrutik. Era berean, kaxa ixteko, koletan pasatako egunkari papera erabili.

# -pasa

## 4 Puzzlea

Amaiak puzzlea amaitzear du, baina azken pieza zein den asmatu ezinik dabil. Lagunduko al diozu?




## 5 Bikiak

Zein lapitz-ontzi politak! Guztiak berdinak direla dirudien arren, bi berdin-berdinak dira. Begiratu arretaz ea asmatzen duzun!




## 6 Itzalak

Zoologikoan, tximinoak beroz ito beharrean dira, eguzkiak gogotik jotzen baitu. Itzal horietatik asmatuko al zenuke Luxe tximinoa jaten ari den platanoaren itzala zein den?






**4** Guztia lehortua dagoenean, dortokaren burua, oinak eta isatsa margotuko ditugu kolore berdez.



**5** Dortoka amaitzeko, hartu margo guztiak, eta azazkalak, begiak eta ahoa margotu. Oskola, berriz, laranja kolorez margotuko dugu. Oskolako azken xehetasunak kolore berdez eta horiz apainduko ditugu.

Erantzunak: **1.-** Olazabal eta golfeko makila; Arantzabal eta Realeko elastikoa; Vilariño eta autoa; Fiz eta korrikalaria. **3.-** Nocioni, Scola, Bennett, Jordan, Gasol, O'Neal eta Bryant. **4.-** C. **5.-** 2 eta 7. **6.-** D.